

BERTSOETAN

BAKE-AIZEAK

Urten egizu, biotzetatik, maitasun - iturri
orrek;
Urten loretxu, txit politetik, dozun usain
gozo dana
Urten bai ezpan, gorrietatik, irri-barre ez-
titsua
Urten bai begietatik, argi bizi driz-driz, ta
otzana
Alkartu danok, euskal ortzean, odei zuri-
zuri sortzen.

* * *

Eldu bai gero, itxas-aizea, zuek danok indar-
tzera;
Erri guztira, bultza egíñez, arnasa-bidez sor-
tzera,
Euskaldun danon, biri-bularrak, maitasunez
betetzera.

* * *

Orrela lortu, gure gurari, sakon ta aundia.
Laiño orren eztiak, arnasa artzean, guztiz
beteko al dauz
Usain gozoz, ezti-bigun, maitetasun alkarta-
sun lortuz
Euzkadi dana, olako aise garbik beteko al
dau gaur.

* * *

Olan izango dala, erririk onen, eder kutunena
Egunen baten, danok esango dogu: Nun guda-
nekea?
Euskaldun anai maite! poztu zaiz ta jarrai,
beti aurrera
Gurea da garaipen, gurea osasun, gurea
bakea.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

LENGUSIÑAREN ERIOTZAN

Ilbetz onetan, asikera
zeure eriotzen barria,
ta ainbeste oldozpen itunak
neure biotz barrenean.

* * *

Liorren eta Dima'n bitartian
aurkitzen da asabaren basetxia
anai bien alabak, eta biak
bardin ixena, baita abixena.

* * *

Asabaren etxera, geure elia
obeto ikasteko, jua nintzan
udabarri baten. Ni gaztia,
zu gaztiago zian, euzkelduna;
ni, erdi-euskaldun baiño enintzala.

Mayetz-azkena zala, illuntzian.
Zeure gorputz-inguru, zeru-mugan,
lepo oyalaz lotuta, zeure neba.
Abots argiz aizian abestia...
Ioren abesti zala, oroitzen naz.
Zu larrosa, benetan, ba-zara-ta,
larrosa pinpiña zeure albuan.

* * *

Urriak igaro ta neskatua
ezkondu, andra zabala bigurtu zan
eta bere nebatxu abadia,
Miren-Biotz-Semia orain dala.

* * *

Zeure goguen alde, danok otoi...
Neure barruan dago itxaropen;
Lepoz eruan zenduban neba orrek
orain Jaugoikoagana eruango au
goiko indarrez, zerura, len bai len.

UTARSUS

AGUR URTE ZAR!
AGUR GABON ZAR!

Agur gabonzar, agur!
Zureak egin dau!
Ate-joka daukagu
Urte barri bat gaur.

* * *

Zoaz mundu ontatik
sekula santuan,
igartu zara guztiz,
uts dozu barruan.

* * *

Ainbat poz eta neke
zure sabelean,
izan ditugu danok
gure biotzean.

* * *

Orain urte bete da,
gure itxaropen
zuga ipiñi genduan
barrua irakiten.

* * *

Urtea joatean,
nai genduan geien bat

ez dogulako lortu,
nai dogu beste bat.

* * *

Zoaz! Ezer ez zera
Zoaz! Urte zarra!
Pekatu askorekin
galdua bait zara.

* * *

Betor Urte barria,
gazte ta guria,
beragaz bat etor bei
bake ugaria.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k